

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1992ko irailak 18, 162. zenbakia

ARKOk argitaratua Udalaren laguntzarekin



Arrasate-Iparraldea


Harremanak estutzen



HOTZ-BERO
KLIMATIZAZIOA

Maalako Errabala, 33
Tfnoak: 79 70 98 eta 77 04 83
ARRASATE

- AIRE GIROTUA
- BEROKUNTZA
- ERAUKUNTZA
(Estrazioak)
- ARAZKETA
- MANTENUA



**Aurten
Maritxuk
mirari bat
baino
gehiago
egingo du...**

**ARRASATE
PRESS**

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

ARKO. Arrasate Komunikabideak-AED
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon

Maketazioa:

Goio Arana

Publizitatea:

Kepa Oliden

Tfnoa: 77 08 15

Kontabilitatea:

Agurtzane Gaintzarain

Erredakzio-kontseilua:

Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier
Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero eta
Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantza
Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi,
Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz,
Atalaitaikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon
Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-
Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon
Andueza, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan
Bautista Agorria, Leintz Bertsoeskola.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. Ozaeta

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 6.300 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurritutako Kultura eta Turismo
Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan
egiten da.

Lanari dagokion soldata

Ba zen behin baten ofizinetako lanerako prestatu eta gero biltegi bateko sarrera-irteeren kontrola eramateko lanean hasi zen neskatila bat. Hamabost urte zituen eta biltegi-buruak aita batek bezala tratatzen bazuen ere, ez zen berdin gertatzen bere laguntzailea zen gizonarekin eta zenbaitetan aginduak ematen zizkion bere gainetik zegoela nabarmen araziz. Eta biziro haserretzen zen laguntzaile hau biltegi-buruak emandako agindu ezberdinen bat eman eta neskatilak betetzen ez bazuen.

Biltegi-buruak, lanean erakustez gain, eguneroko harremanetan leialtasuna ere irakatsi zion. Baina, bazen bestelakorik ere. Egutero, hamaiketako puska jaterakoan, hari laguntzeko ardo botila ekartzen zion neskatilak inguruko tabernatik.

Geroago, beharrezko azterketak egin ondoren, salmentako sail bateko idazkari izatera pasa zen neskatila. Enpresako jabe eta zuzendarienez gain, hainbat neska eta mutil batzu ari ziren lanean ofizina hartako sail ezberdinetan: laborategi, produkzio, erosketa, salmenta, administrazio, esportazio-inportazio eta zuzendari-tzan. Eta elkarrekin ongi konpontzen ziren lankideak.

Denen artean bazen mutil bat neskatila honen adin berekoa eta gainera profesio maila eta antzinatea bera

zuena.

Eta gertatu zen halako batean neskatila baino %20 inguru gehiagoko soldata jaso zuela aipatutako mutilak, lanean ezere aldaketarik izan gabe, ez bata eta ez besteak.

Zergatia galdetzean azaldu zen adin nagusigoa heltzean, —hogeitabat urte garai hartan— automatikoki gainsari bat ematen zitzaiela handik aurrera gizonetzko, "neskak gonbidatzeko, etxebizitza erosteko, familia osatzeko... behar zutelako".

Eta emakumeak zer?

Emakumeek ez zeukaten zer esanik, soldatak lege jarritako komenioaren gainetik zeudelako. Eta jabeen esanetan, nahi zutenei ordain ziezaiaketen gehiago, legea bete ezker.

.....

Orain ez omen dira gauzak horrela egiten lantegi hartan, baizik eta maila profesionalaren arabera ordaintzen omen zaie denei. Hori bai: ia denak emakumeak omen dira sail batzuetan eta ia denak gizonetzkoak besteetan. Eta maila profesionalak handiagoak omen dira sail batzuetan besteetan baino.

Asmatuko ote zenuke zein dagokien emakumezkoen eta zein gizonetzkoen?

RUFINA OLASAGASTI

Memesa
79 42 22

LORATEGI
taberna

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67

NAROKI
Urrezko bitxiak

NAROKI
Opariak, Jostailuak, Liburuak,
Paperdegia
Erdiko kale, 23 ARRASATE Tfnoa: 79 20 47

• Txitxinpe •

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84



DAMKART

**Estetika eta ileapaintzaile
Eskola**

M.E.C.-ek homologatua

Bittor Sarasketa, 7-3.
Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52 EIBAR

ARAMAIO okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46



Kontzezliffo, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

Garapena ekologiarene aurka?

Deba bailadan, besteak beste, Deba korredorearen hobekuntza garrantzitsua, Durango-Beasain autobidea, Malzaga-Armiñon autopista izugarria eta Abiadura Handiko Trena bezalako zenbait azpiegitura proiektuk, izango duen eragina handia izanik, Mendia Bizirik, EKI, Eguzki eta Amilotx Deba Garaiko talde ekologistek zera diogu:

1) Eragin ekologiko ikaragarria sortuko duten azpiegitura lan handiak dira. Lan hauen berezko ezaugarriek, auzo, erreka eta mendietan eragina izango dute, eta interes handiko zenbait toki desagertzeko arriskua ere badago, Etxezarreta eta San Martzial adibidez.

2) Ekonomia bultzatzeko ezinbesteko lanak bezala saldu nahi dizkigute, ingurugiroan sortuko diren kalte izugarriak eta milaka miloi zuzen ez erabiltzea justifikatu nahian. Garapena eta ingurugiroaren artean oreka egokiagoa lortu behar da.

3) Ez dugu Debako korredorearen zati batzuk hobetu behar ez direla esango, baina ez da gauza berbera hobetzea eta lan guztiz berriak egitea, kasu honetan egin nahi den bezala.


4) Guzti honi, informazio falta handia gehitu behar zaio, proiektu hauek nolabait ezkutuan burutu nahia eta gizarteko arlo ezberdinak kontuan izan gabe. Tartean dauden giza taldeen arteko eztabaida sakon bat beharrezkoa da, eta horregatik Gipuzkoa eta bailadako erakundeei eskatzen diegu eman dezatela argi eta garbi proiektu hauen inguruan egiten ari diren negoziaketa eta ematen ari diren pausuen berri.

5) Kotxea eta abiadura beste guztiaren gainetik daudela pentsatzea-

rekin bukatu beharra dago. Minutu batzuk aurreratzea ez da ezinbestekoa; ingurugiroa zaintzea bai.

Aipatutako guztia kontuan izanik, Udalei, Foru Aldundiari, Jaurlaritzari eta talde politikoei, hausnarketa serio bat egin dezatela eskatzen diegu, hau da, bailaran ditugun toki natural urriek duten garrantzia behar bezala kontuan hartzen saiatu daitezela. Izan ere, bestela inguru natural hauek kalte handiak ezagutuko dituzte, proiektuak herritar guztien beharretara egokitze-ko ahalegin bat egiten ez bada behintzat.

MENDIA BIZIRIK, EKI, AMILOTX ETA
EGUZKI



AKADEMIA

BASTIDA

INEM-ek homologatutako ikastetxea

Ferferias, 44
Arrasate
Tel.: 79 32 16

1992-93 IKASTARO EGITARUA

- GESTIO INFORMATIKA
- PROGRAMAZIO INFORMATIKA
- KONTABILITATEA ORDENAGAILUZ
- MEKANOGRAFIA ORDENAGAILUZ
- TAKIGRAFIA
- KLASE BEREIZGARRIAK
- MERKATAL KORRESPONDENTZIA EUSKARAZ

Erabiltzen duzu segurtasun gerrikoa?




**Jose Mari Arzaburuaga
(Langilea)**

Batzutan bai eta beste batzutan ez dut jartzen, baina ez dago dudarik askoz be hobea dela lotzea, istripuak ebitatzeko.



**Pilar Ansoategi
(Langilea)**

Bai, erabiltzen dut baina ez herri barruan. Niretzat herri barruan ez da egoten hainbeste istripu eta horregatik ez da hain beharrezkoa izaten.



**Itziar Elexpe
(Langilea)**

Nik ez dut jartzen, ahaztuta daukat. Nire kotxea nahiko zaharra da eta ez ditu gerriko on onak ere.



**Jose Inazio Herranz
(Langilea)**

Ezagutzen ez dudan jendearekin kotxean joaten naizenean, bai, erabiltzen dut.



**Zezilio Berezibar
(Langilea)**

Bai, beti erabiltzen dut herritik kanpo eta baita herri barruan ere. Kotxean sartu eta atea itxi baino lehen gerrikoa jartzen dut.



**Maite Uranga
(Ikaslea eta Langilea)**

Nik ez dut gidatzen baina, bai, aldamenean joaten naizenean jartzen dut gerrikoa. Normalean bidai luzeetan erabiltzen dut.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

| | |
|-----------------------------------|----------|
| Arrasateko Eskualde-Ospit. | 79 53 00 |
| Igualatorria | 79 05 00 |
| Santa Agedako Ospitalea (gizonak) | 79 39 00 |
| (emakumeak) | 79 44 11 |
| Buru osasunerako zentrua | 79 90 11 |

GURUTZE GORRIA

| | |
|---------|----------|
| Bergara | 76 55 76 |
|---------|----------|

DYA

| | |
|----------|----------|
| Antzuola | 76 62 91 |
|----------|----------|

ANBULATORIOAK

| | |
|------------------------|----------|
| Arrasate (Larrialdiak) | 79 13 57 |
| (Txanda hartzeko) | 77 03 46 |
| | 77 07 21 |
| Oñati | 78 08 52 |
| Eskoriatza | 79 98 58 |
| Aretxabaleta | 79 74 58 |
| Aramaio (945) | 45 51 16 |

ANBULANTZIAK

| | |
|------------------------|----------|
| Gipuzkoako ambulanziaz | 45 87 44 |
|------------------------|----------|

UDALTZAINGOA

| | |
|--------------|----------|
| Oñati | 78 04 11 |
| Bergara | 76 14 69 |
| Arrasate | 79 14 39 |
| Aretxabaleta | 79 10 52 |
| Eskoriatza | 79 03 22 |

ERTZAINZAK

| | |
|----------|----------|
| Arrasate | 79 71 99 |
|----------|----------|

SUHILTZAILEAK

| | |
|--------------------------------|----------|
| Udal taldea | 79 09 00 |
| Udal taldeko suhiltzaile burua | 79 20 72 |
| Zubillagako Eskualde-Parkea | 78 28 00 |

MATXURAK

| | |
|----------------------------|--------------|
| Urak (udal zerbitzua) | 79 09 00 |
| Elektrizitatea (Iberduero) | 79 05 81 |
| Gasa | 900 40 05 23 |
| | 79 78 44 |
| | 79 76 78 |

GARRAIOAK

| | |
|----------|----------|
| Taxiak | 79 12 22 |
| P.E.S.A. | 79 14 19 |

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK


| | |
|---------------------------|----------|
| Iturbide Egoitza | 79 72 11 |
| Abaroa jubilatuen egoitza | 79 81 57 |

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

| | |
|--|----------|
| Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte | 79 87 77 |
| KIUB-OMIC | 79 51 55 |

MONTEARRONGO LIBURUTEGIA

| | |
|-----------|----------|
| Monterron | 77 01 05 |
|-----------|----------|



20

• • •

IGANDEA

- Zinea: Alai: "Wayne's World ¡Qué desparrame!" (5-7.30-10)
- Besaide Eguna: Goizeko 10.30etan txalaparta-saioa, 11etan meza, 11.45etan Euskal Mendizale Federakundeko Lehendakariaren agurra, eta 12etan Arrasateko dantzarien saioa.
- Emakumezkoen saskibalo partidua, Arrasate - Tabirako, Musakolako kiroldegian eguerdiko 12etan.
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

23

• • •

ASTEAZKENA

- Odolemateak ambulategian, arratsaldeko 4.30etatik 8etara.
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

21

• • •

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Wayne's World ¡Qué desparrame!" (7-9.30)
- Odolemateak ambulategian, arratsaldeko 4.30etatik 8etara.
- Open Acces ikastaroa, IMI gelan, hilaren 25a arte.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

24

• • •

OSTEGUNA

- Musika jaialdia Zaldibobo eta Akoka taldeekin, Monterronen gaueko 10.30etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

22

• • •

ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Wayne's World ¡Qué desparrame!" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Amezua, Santamaina.

18

• • •

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "JFK" (6.30-10).
- Ekin Euskarari erakusketaren lehen eguna, zabalik hilaren 27ra arte, Monterronen.
- Oldarra baletaren Nafarroa ikuskizuna, Monterronen gaueko 10.30etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

19

• • •

LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Wayne's World ¡Qué desparrame!" (5-7.30-10)
- ASA - Besaide desafioa, bizikletaz Arrasatetik Kurtzeta gainera, arratsaldeko 5etan.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

Jaiak

• Musika jaialdia

Datorren ostegunean Monterron parkean gaueko 10.30etan musika jaialdia izango da. Bertan Iparraldeko Zaldibobo eta Akoka taldeak izango dira. Sarrera 500 pezetako izango da eta gazte txartelakin 300 pezeta.

• Txontxongilo ikuskizuna

Datoren ostiralean, hilak 25, gaueko 10.30etan Taun-Taun txontxongilo taldeak, "Taun taun show" ikuskizuna eskainiko du. Monterron parkean izango da eta sarrera 500 pezetako izango da, gazte txartelarekin 300.

Deialdiak

• Mendia

Besaide Mendizale Elkar-teak antolatuta, hilaren 27an Igoa—Zubieta mendi-irteera burutuko da. Nafarroako mendietan ibili nahi duenak, hilaren 21, 22 eta 23an, arratsaldeko 7etatik 8etara izena eman beharko du Besaide Mendizale Elkarteko egoitzan. Bazkideek 800 PTA ordaindu beharko dute, bazkide ez direnek 1.100 eta gazteek 400 PTA. Azkenik, aipatu irteera Garibai geltokian izango dela, goizeko 7etan, esan bezala hilaren 27an.

• Gipuzkoako Itzulia

Bihar larunbata, Gipuzkoako Itzuliaren Zarautz-Deba etapa egingo da. Goizeko 8.30etan irtengo du Aretxabaletako Par-tenoitik eta arratsaldean izango da etxeratzea. Arlutz tabernan eman daiteke izena, bazkideek 1.000 pezeta ordainduz eta besteek 1.200.

• Pilota

Arrasateko Pilota Elkar-teak dagoeneko eman dio hasiera



Oldarra baleta Monterronen

Nafarroa ikuskizuna aurkeztuko dute

Gaur gaueko 10.30etatik aurrera, *Oldarra*, Miarritzeko euskal-balet taldeko 30 dantzari, 10 musiko eta 10 kantarik *Nafarroa* ikuskizuna eskainiko dute, taldeak egin duen azkena. Benito Lertxundi, Beñat Achiary, Joaquin Laregla eta beste hainbat musikariri Erramun Martikorenaren aho-tsei gaineratzen zaie, *Oldarra* balet taldeko dantzarien bidez Nafarroako historia begien aurrean jartzeko.

"Nafarroa"ren antzezpena hiru zatitan egiten du Oldarrak, hamabost koadrotan banatuta eta ia ordubetea. Koldo Zabalak zuzentzen duen euskal balet taldeak, "Nafarroa"z gain, "Gernika" obra ere eskainiko du, dagoeneko hainbat tokitan eskaini dutena.

Ikuskizuna Udalak antolatu du, nolabait Iparraldearekin harremanak sendotu nahian, eta Monterronen sartu nahi duenak 800 PTA ordaindu beharko ditu; gazte-txartelaz, berriz, 500 PTA.

aurtengo iharduerari eta pilotan jokatzeko ikasi nahi duten zortzi urtetik gorako neska-mutiko guztiei entrenamenduetara agertzeko gonbidapena luzatu nahi die. Pilota Elkarteko entrenamenduak Iturripen izaten dira, astearte eta ostegunetan; beraz, pilotan jokatu nahi dutenek aipatutako egunetan arratsaldeko 6.30etarako Iturripeko frontoietara joatea besterik ez daukate.

• Igeriketa

Arrasate Igeri Taldeak entrenamendueak astelehenean hasi bazituen ere, oraindik igeriketan iharduteko asmoa dutenek badute horretarako aukera.

Igeri taldean hiru talde daude: 4 urtetik 7 urtetara bitartekoa, 8 urtetik 12 urtetara artekoa, eta hamabi urtetik gorakoa. Informazio gehiago behar izanez gero, nahikoa da egunero arratsaldeko 6etatik aurrera Musakolako Kiroldegian Juani edo Mikelengatik galdetzea.

Igeriketaz gain, IVEFerako prestatu nahi dutenentzat ere badago aukerarik Igeriketa Talde barruan.

• Besaide eguna

Igandean Besaide eguna ospatzen da. Urtero bezala aurtenera ere, Euskal Mendi Federazioak, mendian hildako mendizaleei omenaldia egingo die.

Erdella, Orixol eta Besaide Elkar-teak antolatzen dute eguna eta antolaturiko ekintzen artean goizeko 10.30etan txalparta saioaren ondoren meza santua izango da, Aramaio, Atxondo, Elorrio eta Arrasate herrietako koruekin. Ondoren, Pako Iriondo, Euskal Mendi Federazioko lehendakariak agurra egingo du. Eta ekitaldiekin bukatzeko, Arrasateko dantza taldeek eskaniko duten saioa izango da.

• Asa-Besaide desafioa

Asa eta Besaide taldeen arteko desafioaren berri ere badakargu. Talde bietako partaideek Arrasateko Kurtzeta gaineraino joan nahi dute bizikletaz. Apostua afaria da eta lehenik heltzen direnak gonbidatuak izango dira.



Ikastaroak

• Argazkilaritza ikastaroa

Ikatz Argazki Etxeak, argazkilaritza ikastaro batzuk antolatu ditu. Hiru ikastaro bereizten dira: oinarrizkoa, zuri beltzekoa eta argazkilaritza errekreatiboa. Lehen bi ikastaroek 12 orduko iraupena izango dute eta azkenak 36 ordukoa. Ikasleen kopurua mugatua izango da eta ordaindu beharrekoa, 5.000 oinarrizkoenean, 8.000 zuri beltzekoan eta 30.000 errekreatiboan.

“Gurea bezalako enpresek ez dute %2a baino gehiago irabazten. Helburua bezeroei janari egokia, orekatua, bariatua eta segurua ematea da. Dieta, egun guztian zehar osatu behar den zerbait da. Hilero programaketa bidaltzen dugu ikastetxeetara, gurasoek gero etxean kontutan izan dezaten. (...) Ikastetxeetako jangeletan prestakuntza handiagoko pertsonala behar da, zaintzaileak baino gehiago animatzaileak, hain gustoko ez duten janaria jaten ohitzeko. Etxean laguntza handia behar da, baina jatordurik garrantzitsuena eskolan egiten badute, garrantzitsua da han ikastea”.

(Aranxa Lizaso, Auzo Laguneko Dietistak ETBko 'Ados?' programan. 92-9-14ean)

“ARRASATE PRESS adibidez, kasu berezia da. Gernikako *Deiadar*, Bergarakoek ere polita egiten dute, Tolosako *Galtzaundi*... kendu horiek eta besteak hartu. Herria irakurzaletu behar da, gauza errazak eskaini, irakurgarriak”.

(Agustin Zubikaraik 92-9-13an Argian)

“Eskolaren gaian eskematik irteten duena, estatuarena bezala ulertutako publikotasuna zulatzen duena, apustuaz gain errealitatea eta errealitateaz gain apustua dena, ikastolaren proiektua da. (...) XIX mendeko autoreetan baino zerbait gehiagotan oinarritutako apustu ideologikoa doa ikastoletatik. Ez al dute barruko eritzikeriak eta inguruko hika mitek behintzat alperrigalduko. Beroa izango omen da ikasturtea, administrazioaren eta ikastolen arteko pultsuan dago niri behintzat interesatzen zaidan berotasun mota. Eta honetan, zenbait ezkerreko sindikatu, korporatibismoz nahastutako beren publikotasunaren diskurtsoarekin, Estatuaren aliaturik onenak dira”.

(Jon Sarasuak 92-9-5eko Egunkarian)

Zein erantzun eman behar diozue Gaztetxe inguruko auzokideen kexuei?

Gaztetxeko ordezkariekin bildu ginen eta gure eritzia eman genien, hau da: taberna zabalik egoteko orduak arautu egin beharko dituztela, musika askoz ere bajoago jarri beharko dutela, zaborra dagokion egunetan atera beharko dutela, obrak egiteko aurrez baimena eskatu beharko dutela, eta printzipioz kontzerturik ezin izango dutela egin. Komunei dagokienez, gu prest gaude Gaztetxe barruan jartzeko, baina eurek ez dute nahi, drogen arazoa medio, lokal zabala behar dute, zatiketa barik.

Orain erantzuna euren esku dago. Ezezkoa ematen badigute, gogorrago jokatu beharko dugu, kexak asko dira eta.

Isabel Gallastegi, Gazteria Batzordeko burua




Zein erantzun eman behar diozue Udaleko eskariei?

Badakigu bizilagunek arrazoiak dituzte, gehienbat zaratagatik, eta prest gaude hori konpontzeko zerbait egiteko, baina Udalak jarritako arauak gehiegizkoak direla iruditzen zaigu. Arau horien bidez, auzokideen kexak isilaraziko dituzte, baina era berean gure ekintzak asko mugatuko dituzte. Beraz, uste dugu, ahal bada denon artean, eztabaidatu eta akordiotara iritsi beharko genukeela. Esaterako, kontzerturik ez egin beharrean, auzokideekin ordutegiari dagokionez adostasun batetara iritsi.

Hori egin arte, ez dakigu orain jarri dizkiguten arauak beteko ditugun edo ez, oraindik eztabaidatu beharra dago.

Iker Barandiaran, Gaztetxeko ordezkarietarikoa



IRAKASLE ESKOLA
E s k o r i a t z a
G i p u z k o a

Irakasle Eskola honek zera jakinarazten du:
1992-93 ikasturterako matrikulazio-epea zabalik dagoela.

ESPEZIALITATEAK

- Haur-eskola
- Euskal filologia
- Ingeles filologia

INFORMAZIOA:IRAKASLE ESKOLA

Tfnoa: (943) 79 04 40

Ordutegia: 9-13

ARRASATE PRESS



77 05 65

J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

Olarte, 30 Tfnoa: 79 77 11. ARRASATE

• EGIN EUSKARARI •

Erakusketa Ibiltaria

EUSKARA GIZARTERATZEARI BURUZKO ERAKUSKETA

**Arrasateko Monterron Jauregian
Irailak 18tik 27ra**

Ordutegia: Astegunetan, 6-8

Larunbat eta igandean, 12-2 eta 6-8


Antolatzailea:

Arrasateko Udala

Babeslea:

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako

Idazkaritza Nagusia




AEKko bulego ibiltaria

Aurten AEK-n euskara ikasteko izena eman nahi dutenek, hilaren 25a arte izango dute matrikula-epea zabalik, baina igandean izena emateko aukera hori berezia izango da, AEKko bulego ibiltarian egin ahal izango da eta. Bulego ibiltaria Portaloi inguruan jarriko da, eta matrikula egiteko aukeraz gain, jai-giroa izango da bertan.

Gripearen kontrako txertoa

Datorren urriaren 31 arte, gripearen kontrako txertoa-kanpaina zabalik egongo da. Anbulategian, astelehenetik ostiralera izango dira goizeko 9etatik arratsaldeko 5etara, nahiz eta eguerdiko 12etatik aurrera joatea gomendatu, ordu librean ez izaten direlako. Horretaz gain, auzo auzo ere izango da txertoa: Musakolan irailaren 28an, San Andresen 29an, Santamainan 30ean, Erguinen urriako 1ean, Erdikaldean urriko 2an, Udalan, Meatzerrekan eta Bedoñan 5ean eta Gesalibar eta Gargartzan urriaren 6an. Dohainik ematen da, zita aurretik jarritz gero eta eritasun kronikoren duten pertsonak eta 65 urte-tik gorakoek hartu dezaket.



ONGIETORRIA JAIOBERRIEI

Maialen Unanue Arruabarrena, irailaren 5ean.
Cheyenne Bustamante Zudaira, 8an.


ZORIONAK EZKONBERRIEI

Juan Inazio Perez Usabiaga & M^a del Carmen Acedo Reyes. Irailaren 24ean.
Zibilez.

Txandaka

16 URTE ARTE ERE IKASTOLAN

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak LH1 (FP1)eko Baimen Akademikoa eman dio Ikastolari joan den ekainean. Baimen hau ikastolaren helburu garrantzitsu bat izan da azkenengo bi urte hauetan, 1990ean hasi bait ginen hau lortzeko lehenengo pausoak ematen.



Karmele Iturbe (*)

Orduan Eskola Politeknikoarekin egindako akordioa orain gauzatu da eta horrela Eskolan kokatuta dauden REMeko 1go eta 2. mailako gelak Ikastolaren ardurapean daude ia-danik.

Transferentzia hau progresiboki eta modu egoki batez egin ahal izateko, Ikastolak eta Eskolak epe bitarteko bat martxan ipini dugu, 94-95 ikasturte arte.

Epe honetan zehar:

1) REMeko 1go eta 2. mailako gelak Eskolan egongo dira kokatuta.

Bitartean, Ferixalekuko Birmoladaketari ekingo diogu. Posible bada, 93-94 ikasturterako edo, asko jota, 94-95 ikasturterako, 12-16 urte bitarteko etapa osoa kokatuko dugu edifizio honetan.

Obra hau birmoladaketa garrantzitsua izango da, LOGSEK eskatzen dituen baldintzak bete ahal izateko.

2) Epe horretan, gaur egungo hizkuntza ereduak mantenduko ditugu, hau da, A/B/D ereduak, Eskolan matrikulatuta dauden ikasleei erantzunez.

Hala ere, eta Ikastolako ikasleak etapa honetan sartzen diren neurrian, A

eredua desagertuz joango da, egutegi honen arabera:

- 92-93 ikasturtea: gaur egungo ereduak A/B/D, REMeko 1go eta 2. mailatan.

- 93-94 ikasturtea: REMeko 1go mailan B/D ereduak.

- REMeko 2. mailan A/B/D ereduak.

- 94/95 ikasturtea:

REMEko 1go eta 2. mailatan B/D ereduak.

3) Eskolan kokatuta dauden REMeko gelen funtzionamendua izango da Ikastolaren ardura. Honetarako, Ikastolako Ikasketa Buruak eta Eskolako REMeko arduradunak koordinazio iraunkor bat jarri dute martxan.

Eskolarekin akordioa egin genuen ekin genion irakasle goaren prestakuntzari ere. Orduan Ikastolako irakasle batzuk hasi ziren REMeko getan eskolak ematen. Horrela, ziklo honen ezagupen akademikoa, neurri batetan, aurreratuta dugu.

Azkenik, inplikaturako guraso eta ikasleei esan nahi diegu saiatuko garela eurekin harreman estuak eta hurbilak izaten. Eurak ere, nahi izanez gero, gurekin jar daitezke harremanetan izan ditzaketan zalantza eta kezka guztiak argitzeko.

Laburtuz, beraz, baimen hau pauso garrantzitsua izan da, derrigorrezko irakaskuntza osoa, 16 urte artekoa alegia, Ikastolan eman ahal izateko.


(*) *Ikastolako Ikasketa Burua*

PAZI-OLA S.A.
GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldipe kalea, 2 ARRASATE Tfnoa 79 29 94

ARRASATE PRESS

77 05 65



Txahala edo behia akabatu eta harategira ekartzearren 32.5 PTA ordaindu behar dira kiloko.

Urtarriletik 4.685 txahal hiltegi

Txahalen %65a eta behien %45a Deba Garaik kanpokoak

Urtarrileko lehen egunetik abuztuaren azkeneraino, 4.685 txahal eta 185 behi eta zezen akabatu zituzten Zubillagako Deba Garaiko Mankomunitateko hiltegi. Horietatik, 1626 txahal eta 101 behi eta zezen Deba Garaikoak ziren, 1627 eta 75 Gipuzkoako beste bailaretakoak, 622 eta 2 Errioxakoak, 16 eta 4 Bizkaikoak, 647 eta 1 Nafarroakoak, 50 eta 2 Arabakoak, 87 txahal Zaragozakoak, 17 Santanderrekoak eta bakar bat Burgoskoa.

Gehiago zehaztuz, esan behar da Zubillagako hiltegi, Arrasatetik 113 txahal eta 9 behi eta zezen eraman direla, Aramaixotik 42 eta 3, Aretxabaletatik 166 eta 8, Bergararik 594 eta 35, Oñatitik 515 eta 31, Eskoriatatik 114 eta 5, eta azkenik Antzuolatik 82 eta 10. Txahala edo behia akabatu eta harategira eramatearren, berriz, kiloko 32'5 PTA ordaindu behar izaten da Zubillagako hiltegi.

Argidagoenez, gure etxeetan sartzen

den okela guztia ez da ez, bertakoa, eta gainera bertakoa edo kanpokoak zenbat den jakitea ere, zaila da, baserriar askok kanpoan erosi, etxean denbora batean eduki eta gero hemen saldu nahi izaten dute eta.

Baserriarrek, berriz, kexu agertzen dira, behia hasteko gastatzen dena, saltzerakoan lortzen dena baino gehiago omen da eta. Gainera, dirudienek, azken 6-8 urteetan abelburuengatik baserriarrei ordaintzen zaienak ez du aldaketa handirik izan, kiloko 500 PTA inguru.

Horren aurrean, harakinek diote hemengo txahal edo behi gehienak esnetarako erabili direla; ondorioz, okelatarako ez direla baliagarriegiak. Txahal edo behi bat erosterakoan harakinak eskaini dezakeen prezioa, aberearen adina, arraza eta nola hasi den gora beheran omen dago. Okelarik gozoena, berriz, larrean ibili eta era berean pentsua jan duten abereek izaten omen dute.

Usteak uste

Bailara sakoneko herri hark beste herriren batekin anaitzea lortu nahi zuen. Donostiak bezala sarreran kartela jartzea, ekintza ofizial ponpoxoa egin eta kale bati urrutiko leku aurreratua izen ahoska-gaitza ipintzea. Herritarrek ez zuten txarto ere ikusten. Elkartruke komertziala, harreman instituzionalak, eta herriaren nazioartekotzea zebilen agintarien ahotan. Zilborretik irtetea, hitz batetan. Eta lortu zen herri hori aurkitzea, aurreratuetan aurreratua gainera, baina zilborraren ondoko oreina ez zuten ezagutzen herritarrek (ezta agintariek ere). Eta hasierako ilusioak paper arteko harremanetan itozteko arriskua zuen; herriko umeek ez zuten beste herriko umeak ezagutzeko modurik izango.

Bitartean, urrutiagoko herri pobreen benetako anai egiten saiatu ziren herritar batzuk, brigasista, misiolari, laguntzaile joan eta esperientzia aberatsak izan zituzten. Benetako herri-anaia zenarekin harremanak sakontzen beste batzuk. Baina hori zigilu ofizialaren bedekapen barik egiten zen. Lastima!

ARANTZAZU LOIDI

URONDO
elektrizitatea



Kataide Industrialdea 5. Pabiloia,
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxes: 77 14 76 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak



SAMEGO
GARBIKETAK

Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

❑ Orkatz Skaut taldearen oharra

Arrasateko Orkatz Skaut taldeak ohar bat kaleratu du. Astebukaeretan ondo pasatzea, naturarekin bat egitea eta adin guztietako jendea ezagutzea nahi baduzue, animatu eta datorren larunbatean Abadetxeko lokalera hurbildu, eguerdiko 12etatik aurrera.

❑ Arrasatetik Expo-ra


Famili eta Gizarte Heziketarako Zentroak antolatuta, urriaren 1etik 5era Expo-ra bidaiara egingo da. Bidaiaren prezioa 14.000PTA tan jarri da eta izena emateko Santamainako zentrotik pasatzea besterik ez dago. Autobusaren irteera goizeko 7etan izango, Musakolako San Isidro eliza paretik lehenengo, ondoren Garibai geltokitik eta azkenik San Andreseko geltokitik.

❑ Zaldibarko diru-arazoak konponduta

Arrasate Press-i eman zion bertsioa gezurtatuz, Joakin Azkoagak joan den ostiralean banketxe batean kreditua eskatu eta Zaldibarko Futbito Txapelketa zor zion diru kopurua itzuli du. Dirua bueltatu eta gero, antolatzaileek bukatutzat eman dute arazoa.

❑ Eusko Alkartasunaren oharra

Datorren igandean Iparraldeko Espeleta herrian Alkartasuna eguna ospatzen dela eta, Eusko Alkartasunak autobusak antolatuko ditu. Interesatuok 79 64 53 telefonora deitu.



Joskintza, sukaldaritza, landareen zainketa... ikasteko aukera Santamainan.

Ikastaro ugari Santamainan


Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruak antolatuta

Santamainako Famili eta Gizarte Heziketarako Zentroak dagoeneko prestatu du urte bukaera arteko ekintzen egitaraua, emakumeei zuzenduta. Antolatutako ikastaro guztiak arratsaldez burutuko dira: 3.30etatik 6.30etara, artisautza tailerra, patroigintza industrial eta joskintza, puntua eta gakorratza, sukaldaritza eta gozogintza, hezkuntza pertsonala, eta psikologia; 6.30etatik 9etara, berriz, sukaldaritza, artisautza tailerra, filosofia, marrazkia eta pintura, gitarra, eta patroigintza industrial. Aipatutako eguneroko ikastaroez gain,

beste batzuk antolatzeko asmoa ere badago: lehen eta bigarren mailako analisi transakzionala, semealabei irakasten ikastekoa, eta landareen zainketa buruzkoa.

Aurrekoak gutxi balira, Santamainako Zentroan gazteentzako ikastaro bereziak antolatzekotan dira. Bestalde, aipagarria da aktualitateko gaiak aztertze, agertu ahala, debateak antolatu direla. Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, arratsaldetan Zentrura bertara joan edo eta telefonoz dei egin daiteke: 79 04 59 zkia.

SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko atea, 35 Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ

ARRASATE PRESS



77 05 65

OSORIK PUB

Ignazio Zuluaga, 4



Errepide berriak Kanpazarko mendatea eta Arrasatetik Bergara daraman bidea lotuko du

Kanpazar-Epele errepidea

4 kilometroak egiteko 16 hilabete beharko dira

Kanpazarko mendatea eta Arrasatetik Bergarara daraman bidea lotuko dituen 4 kilometrotako errepidearen obrak, urtea bukatu baino lehen hasiko dira. Foru Aldundiak esandakoaren arabera, urriaren erdialdera obrak nork burutuko dituen jakingo da, eta gehienez handik hilabetera hasi beharko dute lanek. Errepidearen lau kilometroak egiteko, hamasei hilabetetako epea jarriko zaio egileari; beraz, pentsa daiteke 1994ko martxorako Kanpazar eta Epele lotuko dituen errepidea bukatuta egongo dela.

Errepide berri hori egiteko, Aldundiak 300.000 metro karraturen desjabetzea egin beharko du, 70.000 metro karratu jabe-dun arrasatearrei dagozkienak, eta 2.000 milioi PTA inguru gastatu.

Deba Garaiko ekologi talde guztiak, bailara zeharkatuko duten errepide proiektuen aurrean, Kanpazar-Epele errepidekoa barne, kexu agertu dira, horren inguruan dagoen informazio falta salatu dute eta garapena eta ingurugiroaren oreka gordeko duten proiektuak aldarrikatzen dituzte.


Maria Wörth-eko ordezkariak Aretxabaletan

Pasa den asteazkenean Maria Wörth-eko ordezkariak Aretxabaletan izan ziren. Zortzi ordezkari etorri ziren Austriatik: Lehendakaria, gobernuko bost sailburu eta alkatea. Goizeko 10.45etan Gazteizko aireportura heldu ziren eta eguerdiko 12etan gutxigora-behera Aretxabaletara. Bertako Udaletxean harrera egin ondoren, Industrialdearen inaugurazioan izan ziren. Bertan Karintiako lehendakariak gain, Jaurritzako Jon Azua, Eli Galdos Diputatua eta Pedro Mendieta Alkatea izan ziren. Arratsaldeko 5etan Maria Wörth pasealekuaren inaugurazioan izan ziren. Gero, dantza saioa ikusi ahal izan zuten Udaletxeko jardinetan.

Atzo osteguna Gazteizen izan ziren, Ardantza lehendakariarekin elkarrizketatzeko.



Industrialdearen inaugurazioa egin zen.



**BEROGAILU
ETA GAS
INSTALAZIOAK**

CLE GAS

Garro Jenerala, 2-1 ezk. Tfnoa: 77 00 77 ARRASATE
Romualdo Galdos, 22, P-13. Tfnoa: 11 40 64 EIBAR
Particular de Ategorrieta, 2, etxabea. Tfnoa: 27 39 20 DONOSTIA



UXARTE

**Kafetegia,
gozotegia**

**Gaez irekita!!
JO TA KE!!**


Bañez doktorea, 12

Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE

“PAL”

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99



Kili-kili, ume eta gaztetxoaren aldizkariaren 150. zenbakiak sorpresa ederra eman zigun sobrea ireki eta gure zuzendaria bertan ikusi genuenean. Berak ez zuen nahi, ez, txutxumutxuetan agertzerik, baina oraingo honetan langilegoaren diktaturak garaitu zuen eta hor duzue, poliki asko gainera!

Mon, Saskibaloitaldearen fitzaketa. Bere lana kiroldegian dau-denak girotzea. Bankutxoan, argazki kamarari begira dauden bi mutilak eta neska izan dira Mon-en egileak, asteasuarrak hirurak.

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 71 80



**Alkoholarekin
arazoak daukazu?**
**Agian,
"Alkoholiko
Anonimoek" lagundu
ahal dizute!!**

Alkoholiko Anonimoak
3. areako Informazio bulegoa (Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

**BAKAILO
ETXEA**


Makailoa eta beroni buruzko
produktuak
Makailoa, krocketak eta piper
kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan)
ARRASATE Tfnoa: 79 93 07



◀ Urteroko lanari hutsik egin barik, Juan Luis Goikoleak eta Iñigo Arregik aurten ere egin dute **Maritxu Kajoi iragartzeko kartela.**

Kartelean erabili duten aitzakia urte olinpikoa izan da, Maritxu Kajoi egunean errekorren bat gaudituko delakoan seguruen.



Uztailaren 31n, lanean urte asko igaro ondoren, Lan Kide Aurrezkiko bere lanpostutik jubilatutik egin zen **Karmelo Eriz.** "Merezimendu osoz jubilatutik gainera!" zioten bere lankideek. Lerro hauen bidez, hirugarren gazteria erabat zoriontsua opa nahi diote Karmelori. ▶

Izen PROPIOAK

● **Txus Brizuela**, 28 urte, gasteiztarra, Arrasate Saskibaloitako taldeko entrenatzailea. Ekonomilaria da eta Gasteiz, Caja de Alava eta Askatuak taldeetan jokatu izan du. Larunbat honetan eskontzen da **Camino Ezpeleta** gasteiztarrekin, zorionak beraz!

● **Marga Garmendia**, 29 urte, Enplegu teknikari berria izango da. Madrilen ikasi zuen eta gaur egun udalen arteko ikerketa sozio ekonomikoa egiten ari da. Komite Komarkalean eta Lantegi Eskolan egin du lan.

● **Xabier Retegi**, 55 urte, Industri eta Energia Sailburu orde izendatu berri dute. Bergarako gizon hau, Hezkuntza Sailburu orde izan da orain arte. Export-eko eta Eskola Politeknikoko zuzendaria izan da.

● **Jesus Mari Plazaola**, 35 urteko Udalarra eta **Mendi** txakurra, Euskadiko Txapeldunak dira Oñatin igandean egindako ardi txakurren lehiaketan demonstratu zuten.

DUO DISEÑO

- OBRAK
- BARRUAK
- BULEGO-ALTZARIAK
- PROIEKTUAK
- OSAGARRIAK

Iturriotz, 21
Tfnoak: 79 28 86 / 77 14 94
ARRASATE

**ERAKUSKETAREN
ALDAKETA
DELA ETA,
PREZIO BEREZIAK
IRAILETIK AURRERA.**



Jaso behar zuela zirudien, baina behelainoa eta eguzkiaren arteko borrokan lainoak irabazi. Dena dela, **Kurtzebarri Eguna** giro ezin hobean igaro zuen han bildutako jendetzak. Goizean, lasai-lasai igo, salda hartu, meza entzun, txanpan trago bat trikitilarien inguruan... eta bazkaltzeko Elixabarrira. Bazkalostean, jai-giroa nagusi.



Erguingo jaietako egitarauaren barruan makina bat ekintza antolatu dira, eta arrakastatsuetarikoa, duda barik, **mus-txapelketa**. Urteik urtera, jende gehiagok ematen zuela izena zioen antolatzaileetarikoa batek, aurtengoan 40 bikote. Txapeldunak Karlos eta Marce izan ziren, bigarrenak, berriz, Manolo eta Kastro.


Deba Garaitik **Everesterantz** abiatu den Iñurrategi anaien eta Jose Ramón Zubizarretaren abenturak, jakinmin handia sortu du bailara osoan. Gauzak horrela, eta jendea ahalik eta ondoen informatzeko, Arrasate Kirolak Everesteko maketa bat jarri dute. Everesteko faxak iritsi ahala, atxabaltar biak eta eskoriatzarra non diren markatuz joango dira, egiten duten bidea ikusteko. Maketa **Kepa Altubek**, "Kopi" k egin du. ▶



Gabriel Elorriaga Dka.
Loditasuna • Zelulitia
Zelulolipolisiaren
tratamendua
Santa Kruz, 24-1ª (1ª C eskailera)
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

beatriz
oinetakoak eta
poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 3 ARRASATE

Elektroinjekzio
Zerbitzua 
ARRASATE
KONPONKETAK
Zaldispe kalea, 5
Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

ARRASATE
PRESS

77 05 65

Koldo Zabala izatez getxotarra da, gerra garaian jaio eta bere gurasoek

Frantziara eraman zutena. Balet klasikoa ikasi zuen, Pariseko Goi-mailako Kontserbategian. 20 urte baino gehiago dira *Oldarra* euskal balet taldeko dantzari, zuzendari eta koreografoa dela. Ostiralean, Oldarrarekin batera, Monterronen izango da.

— Nola sortu zen *Oldarra*?

— *Oldarra* gerra ostean hasi zela dio jendeak, Segundo Olaeta errefuxiatua, Miarritzen gelditu zela eta ezpatadantza egiteko ume talde bategaz arduratu ei zen. Segundo Gernikara itzuli zenean, ume haiek dantzan jarraitu omen zuten, Oldarra sortaraziz. Nire ustez, *Oldarra* Segundo Olaetaren ikasleek sortarazitako dantza taldea zen, hortan ez dago dudarik; baina inoiz ez da esaten *Oldarra*-koak *Eresoinkako* oinordeko historikoak zirela, garai *Eresoinkako* kantari eta dantzari asko Oldarran sartu ziren eta. Gainera, *Oldarrak* Manu de la Sotak *Eresoinkarentzat* egindako *Lur Argi, Ilunabarra, Bihotz apala...* eta antzeko lan asko bereganatu zituen.

— *Oldarra* errefuxiatuen seme-alabez osatuta dago, ezta?

— Taldea edonorentzat zabaldua dago, baina dantzari gehienak errefuxiatuen 2. edo 3. belaunaldikoak dira.

— Ordutik asko aldatu da lana egiteko era?

— Orduan, koreografia baino antzerkiak agintzen zuten, estampa itxura emanez. Tradiziozko dantza bat egiten zen eta akzioari jarraipena emateko baletoko dantzariak baino, mimoak ateratzen ziren. Mutiko txiki bat

Koldo Zabala

Euskal balet-aren aitzindari eta Oldarrako zuzendari



besterik ez nintzen, baina segituan konturatu nintzen hura dantza baino gehiago antzerkia zela. Horregatik, *Oldarrako* zuzendaritza hartu nuenean, taldea gehiago bideratu nuen baleterantz.

— Gaur egun zertan ari zarete?

— *Oldarran* gabiltzan 35 pertsonen bokazioa, alde batetik, atzerrian euskal dantza zer den erakutsi eta bestetik, herriari begira, sormen lanera zuzentzen da. Euskal folklorean oinarrituta, bi baldintza ditugu: bata teknikoa, dantza munduan jan-

tzita dagoen jendeaz taldeari profesionaltasun kutsua eman, formazio lana izango litzateke; bestea, berriz, koreografiari dagokiona, Euskal Herriko poema, istorio, edo kontaeren bidez, betiko euskal dantzen inguruan sormen lana egin, eta beste itxura batez aurkeztu.

— Eta gaur eskaini behar duzun *Nafarroa* ikuzkizuna?

— Nafarroako Erreinuaren historia antzezte nahi izan dugu, lau zatitan banatuta esango nuke. Lehen zatia, metereologikoa izango

litzateke, gizakia sortu aurreko garaia, eta hori Arrano Beltzaren mitoaren bidez aurkeztu dugu. Bigarrena, ertaroan kokatu dugu, Nafarroako Kortearen garaian. Hirugarren zatian, berriz, Nafarroa eta Napoleonen gudaosteen arteko borroken antzezpina egiten dugu eta garai hark utzitako ondarearen karrikatura. Azkenik, laugarren zatia, oraindik eman ez dudana, gaurko egoerari dagokiona.

— *Nafarroa* ikuskizunaz gain, beste zerbait eskaini behar omen duzue...

— Bai, *Gernika* baleta, balet kontenporaneo, Bizkaiko dantzaren erritmoaz osatu nuena, ezpatadantza eta zortzikoaren erritmoa nahastuz. Euskal Herriak bere nortasunaren bila egin duen eta egiten ari den borrokaren antzezpina izango litzateke.

— Ez zarete euskal dantzatik urruntzen ari?

— Euskal Dantzarien Biltzarreko sortzaileetarikoa bat naiz, eta inoiz ez diot uko egin euskal dantza tradizionalari eta balet bat egin dudan bakoitzean, tradizioan oinarritu izan naiz. Herriaren tradizioarekin mozte ezi-nezkoa da, bestela sortuko litzatekeenak ez luke sentimendu bera izango, beste zerbait izango litzateke.

— Dantzarako grina nondik datorkizu?

— Etxetik. Aitak San Mamesen dantza egirt zuen 1932ko dantzari-egunean, ni oraindik jaio barik nengoela; anai-arreba guztiak ere, dantzariak izan dira.

— Arrasatearrei zer eskatuko zenieke?

— Gure lana ikusi eta gero, zer dagoen ondo eta zer gaizki esatea, zer gustatu zaien eta zer ez zaien gustatu... hobetzeko horrelako kritiken beharra dugu.

“*Oldarrako zuzendaritza hartu nuenean taldea gehiago bideratu nuen baleterantz*”

Hegoalde eta Iparralde hurbilduguran

Orain urte batzuk, Arrasatek ahalegin handiak egin zituen Iparraldeko herri batekin anaitzeko. Ordukoa gaizki irten zen eta harremanak sendotzeko asmoz, kultur kanpaina jarri da martxan aurten.

Udalaren helburuak

Arrasateko Udalak aspaldi izan du Iparraldeko herri batekin erlazio estua lortzeko helburua edo anaitzea lortzekoa. Hala ere, orain hiru urte hortan saiatu ondoren, ez zen emaitza zehatzik lortu. Beste kasu batzutan bezala, oinarrizko kontaktuak faltan botatzea izan daiteke arrazoiatariko bat. Hori dela eta, erlazioa mantentzea eta harremanak sendotzea helburu inportanteen bezala hartuz, eta anaitze bera alde batera utziz, beste mota batetako harremanak martxan jartzea erabaki zuen Udalak. Horren arabera, oinarrizko puntu batzuk kontutan izanik, honako hau da aurten jarraituko den egitaraua. Aipatu bezala, Oldarra dantza taldea gaur bertan izango dugu Arrasaten, ekintza honekin harremanen lehen pausua egiaztatzen delarik. Bestalde, Pasatorala ekartzeko hainbat gestio egin

ondoren, aurten Santagraziazarrak ez ditugu tamalez Arrasaten izango. Eta zergatik Pastoralak hainbeste inportantzia? "Alde batetik duen kultur zentzuarengatik eta gainera inportanteena da halako antzezlanetan Iparraldeko ia herri oso bat

etortzen dela eta horrek Zuberorekiko harremanak sendotu egiten ditu maila handi batean" dio Udaletxeko Euskara teknikariak. Bestetik, Pastoral zer den eta zer garrantzia esan nahi duen ezagutarazteak ere badu bere garrantzia. Eta hau da eskola

eta publiko zabalari begira bete nahi den beste helburua. Urtero antolatuko diren hitzaldien bidez lortuko da azken hori, eta aurten Pier Paul Bersaize izango da gonbidatua, Muskildi Pastoralaren egilea eta musika taldeetan ibili den gizona. Hala ere, jende gaztearengana gehiago hurbiltzeko asmoz, kontzertu bat ere izango da. Iparraldeko Akoka taldeak ez du herriko talde batekin joko, hasiera batean pentsatu zen bezala, Zaldibobo taldearekin baizik.

Bestalde eta egin daitezkeen amankomuneko ekintzak kontutan hartuz, bertsolaritza mundua era jorratu nahi da. Arrasaten Iparraldeko bertsolariei buruzko erakusketa bat egingo da eta "Santamasetan edo beste jaietan izango diren bertsolari jaietara hango ordezkariak ere gonbidatuko ditugu".

Eskola mailan eta ikasle gazteek Iparraldeko bizimodu ezagutu dezaten, ikasle bidaiak ere antolatuko dira. Iparraldeko "Seaska"k bertako ikasleak bi egunez



"Pastoralak funtzio kultural handia du" dio Rene Harbustanek.

Arrasaten izango direla ziurtatu du. Arrasatetik hara joango diren oraindik ziurtatu gabe dago nahiz eta kontaktuak hasita egon.

Baina, Iparraldeko Muskuldiko herriak, Arnaud Oihenarteren omenez eskaintzen duen ikusgarria Arrasaten ikusteko posibilitatea ziurtatu gabe dago oraindik, nahiz eta gestioak aurrera jarraitu.

Iparraldeko arrasatear baten ikuspegia

Udalaren asmoaz gain, Iparraldean bizi den arrasatear batekin egon gara berbetan. Asmoa, mugaren bestaldean gai honen inguruan dagoen ikuspegia eza gutzea da. "Iparralde-Hegoalde arteko harreman horiek beharrezkoak dira dudarik gabe, baina anaitzea egokiena den ala ez zaila da jakitea, herri aproposena bilatzea oso zaila da eta. Hemengo herri batek badu Ondarroako herriarekin anaitzea eta hemen egon diren oso harreman onak ikusi ditut euren artean. Hemengoak ere izan ziren Ondarroan, kantaldia eskaini zioten eta benetan oso gustora etorri ziren izan zuten harrerarekin. Urretetan zehar, oso erlazio estuan jarraitzen dute. Arrasateko kasuan, erlazio guztiak euskarazkoak izatea nahi baldin badute, zailagoa da. Adibidez, Maulerekin kontaktuak jarraitzea nahiko balu, ber-



Nahiz eta aurtien Pastoralik ez izan, dantza eta musika taldeak etorriko dira.

tako biztanlegoaren portzentaia txiki batek ezik, ez daki euskaraz. Baina Muskildi herriarekin ordea, errazagoa izango litzateke, euskaraz bizi eta euskaldun sentitzen diren herriak direlako. Mentalitatea seguruenik ez da berbera izango baina adibidez euskara bat da eta Euskadi ere bat da eta antzekotasun hori da inportanteena, jendeak hori sentitzea. Bestalde, Pastoralak ere badu bere funtzio kultural propioa, herriz herri ibiltzeak inportantzia handia du, Iparraldeko kultura ezagutu eta zabaltzeko. Jende gehienarentzat bat gara, nahiz eta muga fiktizio hori erdian egon, bat gara eta hori jendeak horrela sentitzea da inportanteena."

Arrasateko Zuberotar baten ikuspegia

Rene Harbustan, Bedoñan bizi den Zuberoatarra da. Berarekin harremanetan jarri ginanean, kontatu genion zertaz hitz egin nahi genuen eta hau adierazi zigun telefonoz, "Nik aspaldi adierazi nuen ordua dela harremanetan hasteko eta horretarako Udalak hartu behar duela erabakia. Hemengo lagun asko bidaltzen dut Zuberoara, baina ez turista gisa, baizik inportanteena harremanetan jartzera eta bertako ohiturak, kultura eta beste-lakoak ezagutzea da, baina hori lortzeko umeekin elkartrukeak hastea izango litzake modu egokiena". Bestalde,

Renek adierazi zigunez, Iparraldean gutaz duten irudia oso txarra da, "Oinarrizkoena irudi hori aldatzea da, adibidez han bizi den jende abertzalea oso marginatuta dago, herri gehienetan ez da ia euskararik egiten. Pastoral batzuk, herrian bertan antzezteko bakarrik izaten dira, ez dute nahi izaten Hegoaldean aurkeztea, esaten dute: ikusi nahi badute etor daitezela hona. Baina batzuk desiatzen daude harreman horiek hasteko. Niri, adibidez, musika talde bateko partaideek esaten didate: Ea noiz antolatzen duzuen zerbait, joango gara kontzertu bat eskaintzera. Udalak harreman horiek hasteko erabakia hartu badu, asko pozten naiz".

**Basabe
jatetxea**

**Menu eta afariak
Boda eta banketeak**

Industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoak: 79 91 84
77 07 94

Altzariak
Diseinua
Apainketa
**M
ARENAZA**

Bizkaia, 1 ARETXABALETA Tfnoa: 79 08 07

Igandean Besaide Eguna

Argazki eta brontzezko irudien erakusketa Harresi aretoan

Urtero bezala, igande honetan Euskal Herriko mendizale ugariren topaleku bihurtuko da Besaide. Izan ere, iraileko hirugarren igandea mendian bizia galdu dutenez oroitzeke eguna izaten da, Besaiden egin ohi den elkartzaren bidez.

Besaideko omenaldia dela eta, ekintza egitarau ederra prestatu dute Besaide mendizale taldeko arduradunek. Besaidera igotzen duten guztiak, goizeko 10.30ak aldera txalaparta saioa entzuteko aukera izango dute; beranduago, berriz, meza nagusia monumentuaren ondoan, Aramaio, Arrasate, Atxondo eta Elorrioko abesbatzen partaidetzarekin. Meza bukatu eta gero, Pako Iriondok, Euskal Mendiza-



Besaide chundaka lagunren topaleku bihurtuko da igandean.

leen Federakundeko lehen-dakariak hitz batzuk luzatuko dizkie Besaiden bildutakoiei. Egitarauari bukaera emanez, Arrasateko dantzarien saioa izango da ikusgai.

Aipatutakoaz gain, gogoratu behar da joan den as-

telehenetik eta hilaren 27ra arte, Arrasateko Harresi aretoan "Besaide 1953-1992, Euskal mendizaletasunaren ikurra" izeneko erakusketa izango dela, Besaideko argazki eta brontzezko irudiz osatuta.

Arrasate Saskibaloitaldearen aurkezpena

Arrasate Saskibaloitaldearen aurkezpena egin zen joan den larunbatean Musakolan. Aurkezpenerako Donostiako Loiola Easo taldea etorri zen, lehen mailako taldea. Normala denez, partidua donostiarrek irabazi zuten, baina Arrasate Saskibaloitaldeak eta fitxaketa berriak oso irudi ona eskaini zuen.

Hurrengo partidua

"Larri samar, baina joan den igandeko partidua irabaztea lortu genuen, -ekin zion elkarriketari Iñaki Zezeagak, Mondrako entrenatzaileak- eta aste osoan egindako lana nabaritu zela uste dut, gola sartu zigutenean partidua galdutzat eman beharrean, erreakzionatu eta aurrera jo genuen eta. Alde horretatik oso pozik".

Ondorengo partidua larunbatean izango da, Getxon arratsaldeko 5.30etan. "Partidu zaila izango da, Getxok orain arte jokaturako bi partidua irabazi ditu eta. Dena dela, aurtengo txapelketa hasi zenetik 3. astea bete da eta gu gorantz goaz, fisikoki batez ere. Taktika aldetik erabakita daukat nola jokatu beharko partidua, defentsan gogor lana eginez eta pare bat aurrelari azkarrekin, kontraerasora azken finean. Partidu borrokatua izango da seguruen".

Aipatutako taktika hori aurrera eramateko zailtasunik ez du izango Iñaki Zezeagak, Moreno izan ezik, gainontzeko jokalariek egoera fisiko onean ditu eta. "Arazoak niretzat, 20 jokalaria daukat, 16 eraman behar ditut eta 11 jarri jokoan. Hala ere, hobe da arazoak jokalaria gehiegi izatetik sortzea eta ez faltagatik".



Kabia altzariak


Gipuzkoako Etorbidea, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 27 70



PODIUMA

URKO BEDIA

Atletismoan lehen garaipena lortu ondoren



Larunbata arte Urko Bediak ez zekien zer zen kros-lasterketa bat irabaztea, ordura arte bigarren eta hirugarren postuak makina bat aldiz lortutakoa zen, baina lehenengorik sekula ere ez. Podiumaren gorenera igotzeko ordua Bergaran iritsi zitzaion, San Martinetako krosaren barruan, hamalau urtetik beherakoentzako lasterketan. "Oso gustora geratu nintzen irabazi eta gero; izan ere, badira bi urte t' erdi hasi nintzanetik eta baneukan zerbait irabazteko gogo. Kopa bat eman zidaten eta ilusio handia egin zidan".

Beharbada Bergarako San Martin krosak ez du izugarritzko mailarik izango, baina hala eta guztiz ere, Urkoren garaipenari ez zaio duen garrantziarik kendu behar, kontuan hartuta gainera horretarako ia egunero burutzen dituela entrenamenduak. "Astean hiruegunez entrenatzen dugu eta askotan larunbata eta igandeetan ere bai. Entrenamenduak ez dira oso gogorak izaten, serie motz batzuk egiten ditugu, hesiak... kategoria berekook elkarrekin. Nire adineko jenderik ez dago, ez dakit, behar bada jendeari ez zaio gustatuko korrika

egitea". Urko gazteari gustatzen zaio, bai, korrika egitea, batzuetan nagi samarra dela aitortzen duen arren. Dena den, egun nagiak alde batera, atletismoa uzteko asmorik ez du agertzen. "Kategoriaz aldatu eta lasterketa luzeagoak egin nahiko nituzke. Oraindik, infantil mailan nago eta horregatik ezin izan dut federatu karnetik atera. Nire asmoa federatu eta ahalik eta lasterketa gehienetan parte hartzea da, infantiletan lasterketa gutxi izaten ditugu eta".

Aitortu digunez, krosa du gus-tokoen, nahiz eta federatu barik egoteak orain arte pista probatzeko aukerarik ez dion eman. "Oraindik ez dut sekula pistan lasterka egin, aurtengo denboraldian izango dut horretarako aukera. Ikusi egin behar nola moldatzen naizen".

Ez luke Urkok arazorik izan behar pistara moldatzeko, nagi samarra izanda ere, atletismoan eta lehiaketetan parte hartzeko gogo nabarmen nabarmen antzematen zaio eta. Ea lehen podium hau ez den azkena!

◆ Everest-eko azken berriak
"Trailak, 9.

Namaste Euskadi!!

Orain arte izan dugun eguraldi ona aprobetxatuz irailaren 5, 6, eta 7an bigarren kanpamendua (6.500m.) montatu eta hornitu ahal izan dugu. Modu honetara 3. eta 4. kanpamendurako material guztia bertan dugularik. Honetaz gain, 1. kanpamenduan 3 gau eta 2. ean gau bat egin dugunez, aklimatazio aldetik ere oso ongi gabilta.

Azpimarratu beharra dago 2. kanpamendura iristeko zenbait arazo gainditu behar izan ditugula: 1. gotik 2. en bidean zenbait material behar izan ditugula aurreneko goazen espedizioa garelako eta material hoiek atzerago zetorren frantsez espedizio batekin negoziatu behar izan ditugu.


Une honetan 8 espedizio daude beheko kanpamenduan eta bat besterik ez da falta bertaratzeko (Ukraniakoak): 3 frantsez, amerikarra, alemana, italiarria, naparrak eta gu.

Azken orduetan eguraldiak okerrera jo du eta bestetik espedizio gehienak 2. kanpamendura iristekotan daude, beraz Lhotseko pareta ekipatzeko eta Hego Lepora iristeko faktore hauen espektatibetan gelditzen gara. Dena den, animoz indartsu gaude, beraz zirt edo zart egiteko moduan. Berririk egon ahala abisatuko dugu.

Besterik gabe, laster arte!"

◆ San Migel torneooa

Joan den igandean, Arrasateko bikote bat bertan zela, Aretxabaletan I. San Miguel torneoaren kanporaketak jokatu ziren. Korta eta Zuazubiskarrek osatutako bikoteak garaipena lortu zuen Errasti-Galeano bikotearen aurka, 22 eta 16. Emaitza horren ondorioz, arrasatearrek Errasti anaien aurka jokatu beharko dute finala.



Izozkitegi S. L.

Gure espezialitatea:
pastel bariatuak, tartak,
pasteltxoak eta pastak.
Izozkin italiarra: 30 zapore baino
gehiago.

Ordutegia:
Lanegunak 8.30-13 eta 16-21
Jaiegunak: 8.30 14 eta 16.30-21
Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 81 68
ARRASATE

Besaideko monumentua

1 953 urtea zen eta Europako gailurrean bere lehenetariko ahaleginak egiten ari zela, istripu lantz bat jasan zuen Euskal Mendigoizale-tasunak. Espedizio horretan joandako lau mendigoizalek bizia galdu zuten eta gorpua izozturik geratu Mont Blanc-eko mendian.

Halako berri gogorra jaso ondoren, berehala jarri zen martxan dirubilketa, bertan sortutako gastu guztiak bete guran. 33.377,10 PTA. batu ziren, egondako gastuak 13.759,30 PTA. izan zirelarik.

Dirua soberan bildu zenez, Besaiden monumentu bat jasotzea pentsatu zen mendian hildako mendigoizale guztien oroimenez.

Horrela, 1954garren urtean Luis Pueyo arkitekтуak bere memoria aurkeztu eta 1955eko urriaren 30ean eguerdiko 12etan bi mila mendigoizalaren aurrean, monumentu berriak be-



deinkazioa jaso zuen.

Denbora hartan Besaidetik Euskal Herriko makina bat tontor ikusten ziren inolako trabarik gabe. Zoritxarrez, eta urteak pasa ondoren, pinuak goruntz zetozen eta bertatik ikusten ziren mendian desagertzen hasiak ziren.

Horretaz oharturik, zerbait egin behar zela jabetu zen Federazioa eta ahaleginak egin dira ordutik mendigoizaleen sinbolo bihurtu-

tako paraje eder horri behar zen itxura emateko.

Azkenean, Euskal Herriko Mendi Federazioak bultzaturik eta bertako mendigoizaleen laguntzarekin, Besaide egokitzeko proiektu berria aurkeztu zitzaizen instituzioei eta hauen laguntzari esker proiektuak gorputz hartu eta urte eta erdi pasa ondoren, 1991ko irailaren 29an inauguratu zen.


Berriro ere, eta 36 urte pasa ondoren, han bildutako

mendigoizaleek, Anboto, Udalaitz, San Donato Aizkorri... bertatik ikus teko aukera izan genuen.

Euskal Herriko mendizale elkarteak urtean zehar hainbat kirol ekintza antolatzten ditu, baina dudarik gabe irailaren hirugarren igandekoak zentzu berezia du. Mendizaleetasunak gure herrian betidanik izan du arrakasta handia eta horren adierazgarririk handienetariko bat mendigoizaleen artean bizi izandako giro ederra eta jatorra. Nola ez, gurekin urtean zehar ibilitako adiskideei merezitako omenaldi txiki bat egin?

Besaidek hartu duen itxura berriaz jende askoren bilgune bihurtzen ari da. Baina zoritxarrez badago oraindik natura errespetatzea zer den ez dakienik. Kotxea hartu eta bertaraino joan behar. Ohar txiki bat ematea besterik ez dugu nahi. Natura hondatzeko pauso eder bat ematen ari zaretela.

BESAIDE M. E.



KATAIDE
J A T E T X E A

Kataide poligonoa.
Tfnoa: 79 60 10
ARRASATE

*Asteburutan
kanpoan afaltzeko*

EZ DIRURIK JAN.

**KATAIDE jatetxean
zeure neurriko afariak
dauzkagu.**

**Sabelerako eta poltsikorako.
1.300 PTA.**



ZALIBOBO

AKOYA

TRAIAREN * 24 ^{EGUN}

GAUEKO 10 ETAN


ARRASATEN MONTERRON PARKEAN

ANDIAZALEA * ARRASATEKO UDALA
LAGUNZALEA * GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIA
BABESLEA * RAJOI TABERNA

Arriaga

Arizmendiarreta lehiaketa

Aurten 7. edizioa du Gizabidea Fundazioak On Jose Maria Arizmendiarrietaren oroimenez antolatzen duen Lehiaketak. Helburu bezala, "Kooparatiben sortzaileak bultzatu zituen baloreetara gazteria hurbiltzea, bere mezua ezagutaraztea" aipatzen zigun Felix Ormaetxeak, Fundazioaren Idazkariak. Urtero, saribanaketa egiteko ekintza akademiko bat burutzen da Eskola Politeknikoko Areto nagusian, eta bi belaunaldi elkartzen dira, sarituen izenekin eta diskurtso batekin argitara ematen den liburuxkan bezala. Alde batetik pertsona nagusiak daude, taldeko partaideak eta bestetik lehiaketan parte hartu duten gazteak. Aurtengo ekitaldia abenduaren 3an izango da, Arizmendiarrietaren heriotzaren urteurrenean, eta Dionisio Aranzadi izango da hizlari, Enpresa Kooperatiboa gaitzat harututa.



Aldaketak

lehiaketaren berezitasun bezala, Euskal Herri mailara irekita egotea aipatu behar, orain arte Deba Garaiko ikasleek bakarrik hartzen zuten parte eta. Gaia "Ingurugiroa eta Aurrerapena Euskal Herrian" izango da eta urriaren 31n bukatuko da lanak aurkezteko epea.

Orainartekoan, oso harrera ona izan du lehiaketak eta antolatzaileak oso gusto-

ra daude hori dela eta, beti ehundik gora lagun izan bait dira esku hartu dutenak, taldeka zein bakarka. Hori dela eta, aurten oinarri berri bat sartu dute, maila bakoitzetik hiru lan baino gehiago ezin izango da aurkeztu, eta hor irakasleen aukeraketa lana eta partaidetza sartzan da. Lanen kalitatea ere oso altua izaten ei da eta merezimendu handiko lanak dira Gizabidea Fundazioaren esanetan. Lanok ez dira oraindik argitaratu, eta gazteen ideia eta proposamen horiei zer irtenbide eman eta kooperatibaren ekimenaren inguruan nola aprobeztatu aztertzen ari dira.

Gizabidea Fundazioa 1980an sortu zen, Hezibidieren proiektua babestu eta indartzeko xedez. Kooperatibek emaniko dirua proiektu ezberdinetara banatu eta bideratzea ere bada bere egitekoa, hiru helburu hauekin: formakuntza, ikerketa eta promozioa.

Zaldibobo eta Akoka taldeak Monterronen

Datorren ostegunean, Iparraldearekin harremanak sendotzeko Arrasateko Udalak antolatu dituen ekintzen artean, Monterronen gaueko 10etatik aurrera Iparraldeko Zaldibobo eta Akoka taldeen kontzertua izango da. Sarreraren prezioa 500 PTA, gazte-txartelaz 300.

Kontzertu hori dela eta, ARRASATE PRESSEN bidez hamar sarreraren zozketa egingo da. Behean dagoen txartela bete eta astearte baina lehen ekarri edo bidali ARRASATE PRESSERA:

10 sarreraren zozketa

Izen-deiturak:

.....

.....

.....


.....

.....

Telefono zenbakia:

.....

ARRASATE TELEBISTAk asteburuetan kiroletan lan egiteko kamarariak behar ditu .



TB

Interesaturik bazaude dei egin 77 08 15 tfnora.

Jesus Mari Plazaola eta 'Mendi'

Euskadiko Txapeldun berriro

Orain bi urte, 'Mendi' txakurrak eta Jesus Mari ardi txakurren Euskadiko txapeldun izatea lortu zuten. Aurten gauza bera lortu dute, Oñatin jokatu zen txapelketan. Zorionak bie!

— Txapelketa irabazteko itxaropenarekin joan zineten Oñatira?


— Bai, ondo preparatu joan ginen, bai ni bai txakurra eta behintzat irabazteko behar diren ezaugarriak banituen. Ilusio piska bat baneukan, nahiz eta aurretik jakin ez zela bat ere erraza izango. Hala ere, merito handiena txakurrena da. Nik agindu egiten diot baina azken finean berak egiten du lana.

— Txakurra hezi eta arditan erakustea asko kostatzen da?

— Segun ze txakurrekin, denbora gehiago edo gutxiago kostatzen da. Hala ere, txakur bati, ikasi behar duen dena erakusteko ordu asko pasa behar da berarekin, ikasgai asko eman behar zaio eta gainera pazientzia handia izan behar da.

— Arraza egokiena?

— Beno, txakur batek, arditan ibiltzeko berez izan behar du ona, hau da, arraza onekoa izan behar du. Adituek esaten dutenez,



berez hemengo arraza dena ia desagertuta dago. Nik ardi txakur arrazakoak erabiltzen ditut. Baina bestalde, txakur batek ezaugarri batzuk izan behar ditu: zintzoa izan behar du, esanekoa dudarik gabe, ardietan berezko instinto handia, ez dadila bildurtu...

— Zenbat denbora behar izaten duzu txakur bati behar duena erakusteko?

— Nik txiki txikitatik

hartzen dut txakurra, bi hilabeteekin gutxigorabehera eta ardiak ondo eramaten jakiteko sei hilabete behar izaten ditu. Beste batzuen ondoan jarri eta berez arraza onekoa baldin bada, piskanaka ikasiz joaten da.

— Eta zenbat ardi behar izaten da horretarako?

— Ikasteko, zenbat eta gehiago hobeto. Txapelketan izaten dira ardirik gabe ikasten dutenak ere, eta ondo egiten dutenak baina nik behintzat ardiekin erakusten diet.

— Txapelketan agindutako guztia bete zuten txakurrak?

— Beno, gauza batzuk eragin zuzena izaten dute txakurrengan. Alde batetik, oso urduri jartzen da, txaloak, txistua, zarata...direla eta. Azken finean, bere girotik kanpo aurkitzen da. Horretaz gain, eguraldiak ere asko eragiten dio, zenbat eta beroago okerrago.

— Txapelketaren antolaketa egokia da?

— Bai, nire ustez bai. Urte askotan izan da gauza bera, funtzionamendu bera eta frogak ere bai baina egia esan ez da gauza erraza aldatzea ere. Gainera, partehartzaileak ere betikoak izaten gara urtero, 30 gutxigorabehera.

▼

"Txakurra berez arraza onekoa izan behar da ardiekin ibiltzeko"

◆ Zeramika ikastaroa

Leintz Zeramika Eskolak antolatuta, datorren astetik aurrera, bost astetan zehar luzatuko den zeramika ikastaroa hasiko da. Ikastaroan zeramika lantzeko bi modu irakatsiko dira: tornua eta eskuzkoa. Ikastaroa astelehen, astearte eta ostegunetan burutuko da, tornuarena arratsaldeko 3.30etatik 5.30ak arte eta eskuz lantzeko 6etatik 9ak arte.

◆ Espeleologia ikastaroak

Murruixoko mendizale elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Aretxabale-tako Udalaren laguntzarekin, espeleologia ikastaroa antolatuta du. Informazio gehiago lortzeko edo izena emateko Kultur Etxera edo Murruixoko lokalera joan. Ins-kripzioa 500 pezetakoa izango da. Bestalde Euskal Herriko Espeleologia Elkarteak bi egunetako ikastaroa antolatuta nahi du. Larunbata eta igandean zehar izango dira hitzaldi sorta bat. Bazkideek 1.000 pezeta ordaindu beharko dute eta besteek 2.000.

◆ Besaide erakusketa

Besaideri buruzko argazki erakusketa dago zabalik Harresi Aretxean, datorren 27ra bitartean, egunero arratsaldeko 6etatik 8etara. Jai egunetan eguerdiko 12etatik 2etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara egongo da zabalik. Bertan Besaide-rekin zerikusia duten argazkiak ikus daitezke.

ITSASKI
arrandegia

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
Arrasate 79 98 94

Araba Etor., 4
ARRASATE
Tfnoa: 79 01 32

OHIZKE
Koop. E.

Olakua, 14
OÑATI
Tfnoa: 71 60 00

ALEMANA FRANTSESA INGELESA

Maila guztiak. Umeak, gazteak, helduak. Goizez eta arratsaldez.

ZATOZ GURE BULEGOETARA!

(Goizeko 9etatik 1etara eta arratsaldeko 4etatik 8etara)

Aste gazte

"...oso urte gutxi barru emakumeok lan merkatuan sar gaitezen ezinbesteko izango da, gero eta gazte gutxiago egonda, dagoen lan indar gutzia beharrezkoa izango bait da"

Txaro Arteaga
(Emakunde-ko zuzendaria).

Unibertsitateetarako autobusak

• Garraio-enpresa batek Bilbo edo Donostiako Fakultateetara egunero joan-etorria egiteko autobusak antolatzekotan dagoela eta, interesa duzuenok Gazteen-tzako Informazio Bulegoan eman dezakezue izena. Lehenbaitlehen.

Bekak

• Ingurugiro arloan izan-gaiak gaitzeko eta ikertzeko 8 beka, 88tik aurrera lizen-tziatu diren Goi Mailako Ti-tulodunei zuzenduak. Irau-pena: urtebete. Dirulaguntza:



110.000 PTA hilero. Epea: azaroak 2.

Arrasateko Talde Antimilitarista

• Objezio eta Intsumisoari buruz informazio eta lagun-tza behar duzuen gutztoi ka-ble bat botatzeko prest duzue Garibai Etxean, astelehen eta asteartetan, arratsaldeko 5.30etatik 7etara.

92 urterako dirulaguntzak

• Arrasateko Udalak Gazte-taldeei onarturiko di-rulaguntzen 2. zatia jaso ahal izateko, dagozkion memo-riak aurkezteko epea irailaren 30ean amaitzen dela gogo-razten zaizue.

• Gazte-taldeen lokaletan azpiegiturako obrak egin eta kultur ekipamendua erosteko dirulaguntza-deialdia egin du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Eskabideak aurkezteko epea

irailaren 30era arte zabalik.

HHI-EPA

• 92-93 ikasturterako matrikula epea zabalik dago. Txandak: 2 ordutakoak, goi-zez, arratsalde zahiz gauzez.

Doktorego-programak

• Euskal Herriko Uniber-tsitateak 92/94 biurterako Doktorego-programak ira-garri ditu. Aurreinskripzioak irailaren 30era arte egin dai-tezke.

Lehiaketak

• "Hucha de Oro" XXVII ipuin-lehiaketa. Gaztelera-z. Lanek 3 eta 6 orrialde bitar-tekoak izan behar dute. Gai librea. Sariak: milioi bat, 500.000 PTA eta urrezko itxulapikoak; 25.000 PTAko 20 sari eta zilarrezko itxula-pikoak. Epea: irailak 30.

• "Antonio Gala" I. lite-ratur lehiaketa. Poesia edo prosan idatzitako lanak. Ge-hienez 50 lerro (poesia) edo 5 orrialde. Gaia: alkoholis-moa edo ludopatía. Saria: lana argitaratzea eta 50.000 PTA. Epea: irailak 30.

• "Concello de Cambre" IX. pintura-lehiaketa. Gai eta teknika libreak. Sariak: 700.000, 300.000 PTA eta bi akzesit. Epea: irailak 30.

• "Belaunaldi Gaztea" Arrasateko III. Argazki-le-hiaketa. Zuribeltzean nahiz koloretan. Sariak: 60.000, 40.000, 30.000 eta 20.000 PTAko akzesit bat. Epea: urriak 2.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

Ford
AMETS TAILERRAK
HERGO karabanen banatzailea
TXAKURRAK ERAMATEKO ERREMOLKEAK

Berezano auzoa. OÑATI
Tfnoa: 78 25 92 / 78 19 50

GIZON ETA EMAKUMEAREN MODA

Otalora z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE

EPELDE
argazki denda
Iturriotz, 24

"EDERTU" ileapaindegia

San Andres auzoa. 79 04 28

ETXEBIZITZAK

- Etxebizitza berria salgai Zarugalden. Tfnoa: 945 - 25 89 03.
- Donostian logela baten bila dabilen neska bat naiz. Datorren ikasturterako lekuri baldin baduzu, dei egin eguerdian 79 97 69 tfnora.
- Irailean Ezkaraien etxebizitza alokatzeko dago. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 31 56.
- Bost ikaslek etxebizitza behar dute Arrasate inguruan. Tfnoa: 88 67 23.
- Etxebizitza salgai San Andresen. Foruen Plaza, 3 5 Ezk. Tfnoak: 79 47 28 eta (945) 44 51 99.
- Donostian pisua alokagai ikasleentzat. Alto de Rondon. Ikasturtean bakarrik. Tfnoa: 79 43 56. Itxaro.
- Bi irakasle pisu bila Arrasaten. Dei egin egunez 79 04 11 edo gauaz 88 66 23 tfnora. Arantzazu.
- Ikasle batek logela behar du Arrasaten. Dei egin 28 75 70 tfnora.
- Zaragozan pisua osatzeko neska euskalduna behar du. Tfnoak: 79 28 71 eta 75 19 98.

LANA

- Emakume euskalduna etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 07 73.
- Neska euskalduna jatetxe, ostatu eta tabernan lan egiteko prest. Tfnoa: 79 98 30.
- Zuzendaritzako Idazkaria lanerako eta etxean lanak ordenagailuz pasatzeko prest. Tfnoa: 79 97 30.
- Umeak edo pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest neska. Tfnoa: 79 97 30.
- Etxeko lanak egin eta umea zaintzeko neska bat behar da. Euskaraz badaki, hobeto. Tfnoa: 79 89 32.

- Umeak zaintzeko arratsaldetarako neska euskalduna behar da. Tfnoa: 79 69 96.
- Neska edo emakume euskalduna behar da Gasteizen ume bat zaintzeko. Tfnoa: (945) 24 10 44.
- OHoko klase partikularrak ematen dira. Dei egin 79 27 37 tfnoara.
- Lorazaintzaz dakien norbait behar da lorategiak garbitu eta zaintzeko. Lan ordutatik kanpo izan daiteke eta hilean 15.000 PTA ordainduko litzaizkioke. Dei egin 79 44 37 tfnora goizeko 10etatik 1.30etara eta Amaiaz galdetu.
- Neska gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Dei egin arratsaldez 79 72 92 tfnora.
- Umeentzako klase partikularrak ematen ditut. Edozein gai. Tfnoa: 79 31 48.
- 46 urteko emakume euskalduna etxeak garbitu edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 38 01.
- Klase partikularrak ematen dira urte osoan. Talde txikiak. Pertsonal espezializatu. Dei egin arratsaldez 79 93 03.
- OHoko klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 27 37.
- Neska prest OHoko klase partikularrak emateko. Dei egin 79 68 18 tfnora.
- Ingelesa ikasi nahi baduzu, hemen duzu aukera. Talde txikiak. Tfnoa: 77 05 77.
- Neska prest umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 72 92.
- Alemanezko klaseak ematen dira. Dei egin edozein ordutan 79 78 75 tfnora.
- Lanak makinan pasatzen dira. Tfnoa: 79 78 75
- OHoko klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 38 58.
- Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Dei egin 79 58 80.

SALEROSKETAK

- Razesa markako karreterako txirriindua salgai. Egoera onean dago eta oso prezio interesgarria du. Dei egin eguerdian 79 97 69 tfnora. Iban.
- Opel Corsa SS-X salgai. Berri-berri dago. 76.000 km ditu. Prezioa 380.000 PTA. Tfnoa: 79 55 75.
- Umeentzako seaska eta kalean ibiltzeko karroa salgai. Tfnoa: 79 77 79.
- 9 hilabeteko bideo-joku kotsola (Siega Master System II) salgai. Egoera ezin hobean. Kotsola gehi lau joku prezio onean. Harremanetarako jo (94) 658 33 78 (aste-bukaeratan).
- Bideo kotsola (Jamiko) + 150 jokuko kaseta + 4 jokuko bi kasette + bi kontrol mando = 15.000 PTA. Dei egin 7etatik aurrera 79 41 91.
- Bost lagunentzako kanping-denda salgai. Tuboak aluminiozkoak ditu. Tfnoa: 78 04 89.
- Ia berria dagoen akordeoi beltza salgai. Tfnoa: 79 80 91 (Gauetan).
- Derbi FDS-a egoera onean salgai. Dei egin 79 96 76 tfnora edozein ordutan. Josu edo Javi.

DENETARIK

- Katu gorritxo bat galdu da abuztuan San Andresen, Foruen Plaza inguruan. Zerbait jakinez gero, abisatu: Foruen Plaza, 2-3. esk. edo dei egin 11 84 21 tfnora. Danel.
- ASA eta Besaide taldeko txirriindulariek abenduan indarrak neurtuko dituzte jokatzan dena ikusita gero, eta noski, kontrakuak bere burua azaltzen duenean.



ARRASATEN HILDAKOAK



Cristino Cotillas Cotillas,
irailaren 8an. 60 urte.

Jose Rodriguez Gurria,
irailaren 9an. 84 urte.

Evaristo Carmona Pavo,
irailaren 9an. 40 urte.

Luziana Olaetxea Otegi,
irailaren 10ean. 84 urte.

Eusebio Lizarralde Arriola,
irailaren 12an. 83 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Kontxi Galdos

San Andreseko Kuku dendakoa



- Egunerokoak dira bezero onenak? Bai.
- Larunbatetan gehiago saltzen da? Ez, alderantziz, gutxiago.
- Berezo gehienak euskaldunak ala erdaldunak? Bietatik.
- Sukaldari ona zara? Etxekoentzako bai behintzat eta nahikoa da.
- Zinera joaten zara? Ez, ez asko.
- Seme alabek badute ordurik etxera etortzeko? Ez, askotan okerragoda ordua jartzea.
- Sekretu asko dituzu? Ez, oso gutxi.
- Benidormera ala Alpeetara joango zinateke? Alpeetara. Mendia gehiago gustatzen zait.
- Badakizu zein den zure seigarren abizena? Ez, momentu honetan ez zait akordatzen.
- Lehengo apaizak ala gaurkoak? Gaurkoak, noski.
- Txakur mota bat? Collie-a, etxean daukadana.
- Hiltzeko modurik txarrena? Gaixotasun luze batekin.
- Gerrari bildurrik badiozu? Ez, ez dut horretan pentsatu ere egiten.
- Tangoa ala baltsa? Biak gustatzen zaizkit.
- Arrantzale ala ehiztarien alde? Arrantzaleak gustokoagoak ditut.
- Giltza asko daramazu poltsikoan? Ez, normalean ez.
- Hiri ala herri txikietako giroa? Herri txikietakoa.
- Badakizu gidatzen? Bai, baina ez dut kotxerik ibiltzen.
- Autobusa ala tren? Bat ere ez dut erabiltzen.
- Arratoiei bildurrik? Ez, nik ez behintzat.
- Sua ala uholdeak? Biak ere txarrak dira.
- Euskal Herriko herririk politena? Zaldundo.
- Eta zatarrena? Soraluze, benetan zatarra da eta.


Bertsotan

Maastricht

1
Gaia hartuta zer esan ere asmatu ezinik nago Maastricht-ek sortu izan du gero eta zarata gehiago jarri gaituzte iganderako hauteskundeen esklabo pena da baina Europa dena Frantsesen menpean dago.

2
Hauteskundeak daude Frantzia lege hoiek onartzeko Europar beste herrialdetan egin dira dagoeneko baina guk ez ei dugu aukera eritzia emateko hemen ez al da eskubiderik nahi dena aukeratzeko?

SAIOA ARANDO



MUXIBAR TABERNA

Ezin hoberik inguruan topatu!

Bizkaia Etorb. Tfnoa: 79 09 75 ARRASATE

ARRASATE PRESS



77 05 65



San Frantzisko Xabier parrokia, 1962.

S

an Frantziskoko Parrokian, Asisko San Frantziskoren eguna ospatzen zuten garai baten neska gazteek.

Erretratu hau 1962ko urriaren 4an ateratakoa da, urtea oso seguru

adierazi ez badigute ere. Mahaian eserita, ezkerretik, Eusebia Biaian, alboan Zubillagakoa (hila), Arantza Arzamendi, Lourdes Leibar, Isabel Aranburuzabala, Mari Carmen Velez de Mendizabal, Pilar Uribetxebarria, Margarita Uribetxebarria (Karitateko Mertzedaria gaur egun), Esther Azkarate eta Osane Yarza. Atzekaldean zutik, ezkerretik

hasita, Henar Fuentes, M^a Teresa Ormaetxea, M^a Luisa Altuna, M^a Angeles Bruña, Aurelia Gutierrez, Magdalena Terrazas, M Luisa Apatamonasterio, Belen Aranburuzabala, ezezaguna eta Ana Mari Ormaetxea. Nesken atzean monagi-loak ageri dira, Marzelino Sanz atemarkoan eskuak jarrita eta behean Calleja anaiak irten nahirik.


TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerías, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62


URTITXO

Bokatak eta edariak
• URKULUKo urtegian •



3etatik aurrera

Gurutzegrama




Horizontalak

1. Zatiketa
8. Etxeazpia eta Etxeostea bitartean
9. Gabezia
10. Xikara
12. Ate hitz elkartuetan
13. Burdina erakartzen du
15. (Ald.) Maite
17. Italiako ibai
18. Haizerauntsi

Bertikalak

1. Sumendia
2. Poztu
3. Gogaitu
4. Barruti
5. Kale
6. (Ald.) EEBBetako bat, Augusta hirib.
7. Kanpo
11. Nonbait
14. Musu
16. Itsasoan ugari



JUAN BAUTISTA AGORRIA

Lagundu HIES-aren aurkako burrukan! Egin zaitez HIES EKIMENeko bazkide!

Izen-abizenak
 Helbidea
 Herria Herialdea Telefonoa

BANKURAKO AGINDUA

.....Banketxeko zuzuendari Jn.
 Helbidea
 Agentziaren zkia Tfnoa
zkidun kontuaren kargura **hileroko / hiru hileroko / seihileroko / urteroko*** ordainagiriak zorpetzea eskatzen dizut, HIES EKIMENak aukeztuak,PTAko balioak, bestelako agindurik ez den artean.
 Eguna Sinadura

*Ezabatu egoki ez dena. Urtean 2.000 pezeta gutxienez.

BIDALI IRAGARKI HAU HELBIDE HONETARA:

HIES EKIMENA

Arrasate Pasealekua, 3 behea. 79 26 99 telefonoa (erantzungailuaz).20.500 ARRASATE

Gure aldizkaria jasoko duzue etxean (urtean bi ale gutxienez) eta baita informazioa eta opari txiki bat ere.



Telebegi

Zinema-zale amorratua naiz. Eta horrek nolabaiteko gaixo eskizofrenikoa sortua du nigan, hain gustoko ditudan pelikulak nire bigarren hizkuntza jaso behar izan bait ditut gehienetan.

Orain berriz, ATB ari zait gaixo hori sendatzen. Astero bertan ikus dezakedan pelikula, normalean gustokoa izateaz gain, euskaraz jasotzen bait dut. Horrela, lehen nire erdal parteak bakarrik gozatu eta barneratu zezakeena, orain nire euskal parteak ere berdin mires dezake. Bide horretatik, agur eskizofrenia!

Marlon "Padrino" Brando "Aita Jauna" ere bilakatu denetik, eta Peter "El Grens" O'Toole "Laurence Arabiako", hobeto sentitzen naiz. Eta erabat osatuko naiz Ingrid Bergmanek Bogart gogoan, Louis Armstrong-i esango dionean astiro: "Jo ezak berriro, Sam".

MIKEL IRIZAR

ATBketan

Ostegunean 9.20etan

Anne Igartiburuk umore onez hasiko du aurtengo lehen programa eta hori dela eta, barre batzuk ere egin genituen pasa den ostegunean. Beti bezala bi talde lehiatu ziren eta talde irabazlea aste honetan ere izango dugu, beste talde berri baten kontra. Animatu eta eman zuen izena. Hurrengoan zeu izango zara partehartzaile eta protagonista!

Larrugorritan

Musika desbedinetako jendea izango dugu gure estudioan

Egunero
9.20etan

Asteko zinea

Polizia Akademia Erodan aste honetan aukeratu dugun pelikula

Egunero
9.20etan.

Mondra Sport

Getxo-Mondra partiduen laburpena eta beste kiroletakoa ere

Astelehena
9.20etan

Programazioa

21

ASTELEHENA

8.8.30 eta 9etan **Berriak**. Gaurko albisteak Arrasateko telebistan izango dituzu.

9.30etan **Mondra Sport**. Getxo-Mondra partiduen laburpena.

10etan **Asteko zinea**: Polizia Akademia eroa.

9.30etan **Larrugorritan**: Musika inguruan jardungo duten pertsonai desberdinak estudioan izango ditugu.

10etan **Asteko zinea**: Polizia Akademia eroa.

24

OSTEGUNA

8.8.30 eta 9etan **Berriak**. 9.30etan **ATBketan**. Talde berria, pasa den asteko irabazlearen kontra lehiatuko da.

10etan **Asteko zinea**: Polizia Akademia eroa.

23

ASTEAZKENA

8.8.30 eta 9etan **Berriak**. Iru-dien bidez herriko albisteak ilustratzen ditugu eta informazioz osatu.

9.30etan **Asteko zinea**: Polizia Akademia eroa.

25

OSTIRALA

8.8.30 eta 9etan **Berriak**. Arrasateko ekintza kultural, politiko, ekonomiko eta sozialen laburpena.

9.30etan **Asteko zinea**: Polizia Akademia eroa.

22

ASTEARTEA


8.8.30 eta 9etan **Berriak**. ATBko ekipoak azken orduko informazioa landu du.

• OLDARRA •

baleta

NAFARROA

Zuzendaria: KOLDO ZABALA



Babesleak:



Arrasateko
Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundia

**Monterron
Parkean**

IRAILAK 18, OSTIRALA
GAUEKO 10.30 ETAN

» Sarrera: 800 PTA
Gazte-Txartelarekin: 500 PTA